

ASTEIZ GEU

79. zk
1999ko
uztaila

GEU elkartearen babesarekin

FRANKEO ITUNDUA 48/27

JAZZaldia



Agur, Cuerda jauna

Aldizkarirako zerbait idazteko konpromisoa hartu eta "zerbait" hori zer izan litekeen erabakitzeotan nengoela, hara non aurkitu nuen nire gutunontzian Cuerda jaunak bidalitako idazkia, "Duela 20 urte hiri honek ateak zabaldu zizkion demokraziari..." hitzekin hasten dena. Eta handik gutxira Maria Jesus Aguirre andereak igorritakoa, inkesta eta guzti. Gutun horiek zenbait hausnarketak sortarazi didate eta, aldi berean, lerro hauek idazteko gaia.

Ez dakit lehena irakurri duzuen, baina egin baduzue, seguru nago zuoi ere oso deigarri gertatu zaizuela hain denbora luzean alkate izan denak, guztioi zuzendutako agur moduko gutunean, euskara ez aipatzea. Dokumentu hori ez da bere agintearen balantze zehatza, jakina, baina bi hamarkada hauetan hobetzen saiatu den arloak aipatzen ditu bertan: "... gizarte integrazio eta kohesioa bultzatzen jardun dugu, hala nola, kirol, kultur eta gizarte ekipamenduak, parkeak, gune berdeak eta oinezkoenak indartzen. Ingurugiroa zainduz (...) gizarte solidario bat eraikiz, sendoa,..." eta horrela jarraitzen du gure hizkuntza aipatu gabe. Bitxia, ezta? Bere lekuan egonez gero, politikari askok bestelako jarrera izango lukete: euskararen normalizazioaren alde emandako pausotxo epelak gorai patuz, euren ausardiarik eza eta lan eskasa hitz potoloz mozorrotuko lituzkete... Cuerda jaunak, ordea, ez; Gasteiz hiria euskalduntzeko gutxi egin duenez, ez du gaia aipatzen eta kito. Hori eskertzekoa da, benetan, nahiz eta gizarte honek duen arazo bati aurre egin ez ganoraz. Hemendik urte batzuetara, Cuerda gogoratua izango da, agian, berak aipatzen dituen gauzengatik (eta hain politikak ez diren beste batzuegatik, seguraski), baina ez bere agintepean udal funtzionaritza euskaldundu zelako, edo Udalak umeentzako ekintzak euskaraz eskaintzen zituelako (eskolarizazio orduan eskatutako ereduaren portzentaian, behintzat), edo

euskararen erabilera bultzatzeko kanpaina handi eta eraginkorrak burutu zituelako, edo... berak, hogeitau urte horietan, euskara ikasi eta erabiltzen zuelako.


Idazkira itzuliz, bigarren partean, alkateak (beno, alkate ohiak, zeren lerro hauek irakurtzen dituzuenerako beste bat egongo baita besaulkian) bere ordezkia aurkeztu digu, Aguirre anderea, zeinak "...Lau haurren ama delarik, azken hogeitau urte hauetako lana bere sentiberatasunarekin aberastuko du" -en. Hau irakurri nuenean zera bururatu zitzaidan: "sentiberatasun" horrek, agian, lekutxo bat izango zuela euskararentzat; eta horrela geratu nintzen, itxaropen izpi txiki horrekin.

Normala zenez, lau zapabost egun pasa eta gero bigarren idazkia aurkitu nuen postontzian, Aguirre anderearena hain zuzen. Aitortu behar dut aurrekoan baino interes handiagoa nuela ireki nuenean eta arinago irakurri nuela "euskara", "euskal kultura" edo horrelako hitzak aurkitu nahian. Alferrik, Cuerdaren ordezkioak, gasteiztarren etorkizuna moldatu nahi lukeenak berak ere ez zuen inolako aipamenik egiten, ez gutunean, ez inkestan; aurrekoarenak bezalako kezak honenak ere. Beraz, aipatutako "sentiberatasun" hori ez da euskararen arazoraino heltzen. Jakina, Cuerda parafraseatuz, "euskal hiztuna balitz (emakumea eta ama den moduan), azken 20 urte hauetan egin ez den lana bere sentiberatasunarekin aterako luke", baina erdalduna da eta euskararekiko atxikimendu eskasekoa.

Ez dut bukatu nahi esan gabe hauen jarrera baino askoz okerragoa dutela beste zenbait politikaririk, baina euskara getoan mantendu nahi dutenengandik ezin dugu besterik espero; bai, ordea euren burua abertzaletzat dutenengandik.

Ez dira enarak, sorbeltzak baizik.
Hegalari ezin hobeak. Jan, lo
eta ernalketa ere airean egiten dute.
Txitoak aurrera ateratzeko
baino ez dira pausatzen

Naturaren irladak



azalean

AURKIBIDEA

4.orr

Geu Azoka,
Termometroa..

6.orr



Laburretan

10.orr

Kalea Mintzo

11.orr



Ibili Munduan.
Eneko Etxebarrieta.

12.orr



Infomart.
Argitaletxa.

14.orr


Bizikleteroak



17.orr

PITI-PATA aldizkaritxoa

20.orr



Araba Euskaraz
irudietan.

22.orr

Lau baizetara.

26.orr



Gasteizko
Jazzaldia

30.orr

Ajenda. proposamenak,
Lebiaketak...

34.orr

Txerokiren
abenturak.



Mende honetako azkenengo
Gasteizko jazzaldia hastear dugu.
Mendizorrotzako eta Principal
Antzokiko eszenatokiak prest
daude. Jazz munduko izen
garrantzitsu asko gure hirirako
bidean dago, eta guk, zabalik
ditugu belarriak New Orleans jaio-
tako musikaz gozatzeko. Bat, bi
eta hiru. Beti bezain ona dadila!



Arabako Foru Aldundiko Kultura eta
Euskara Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Gasteizko Udala
Kultura Saila



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Geu Gasteiz, Gasteizko Euskaldunon hilabetekaria

Erredakzioa: Pedro Asua, 2 - 3.a - Telefonoa eta Faxa: 945 22 21 53

Zuzendaria: Estitxu Breñas Glz. de Zarate. **Erredakzio-batzordea:** Leire Lopez de Aberasturi, Edorta Sanz, Karlos Fdz. de Betoño, Estitxu Breñas eta David Alvez. **Erredakzioa:** Leire Lopez de Aberasturi, Ismael Diaz de Mendibil, Txabi Arnal-Gil, Itziar Uriarte, Edurne Begiristain. **Argazkiak:** Edorta Sanz. **Maketa:** Izadi Editoriala. **Komikia:** Iñigo Sarasola. **Naturaren Isladak:** Iñaki Zorrakin. **Kolaboratzaileak:** Sabin Araña Bilbao, Iñaki Zorrakin, Iñigo Kastresana, Maider Perez eta Amaia Zaldua. **Publizitatea:** Karlos Fdz. de Betoño. **Banaketa arduraduna:** Txipi Ormaetxea.

Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) - Ale Kopurua: 2.500 - LG: VI-582/92 - ISSN: 1133-0988 - Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper ekologikoz egina dago. Geu Gasteiz hilabetekariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitako enrantzunkizunik.

PREMAIAZKO TELEFONOAK

S.O.S. DEIAK:

..... 945 112

UDALTAINGOA:

..... 945 092

INFORMAZIOA:

..... 945 010

SUHILTAILEAK:

..... 945 16 11 11

GURUTZE GORRIA:

..... 945 22 22 22

D.Y.A.:

..... 945 28 10 20

ERITXEETAKO URGENTZIAK:

..... 945 24 44 44

AUTOBUS GELTOKIA:

..... 945 25 84 00

RENFE:

..... 945 23 02 02

AIREPORTUA:

..... 945 16 35 91

ERREPIDEETAKO INFORMAZIOA:

..... 945 28 20 00

HIRI-BABESA:

..... 945 16 11 61

UDALETXEA:

..... 945 16 11 00

FORU ALDUNDIA:

..... 945 18 18 18



Kan Groak

Haurrak zaintzen ditugu

GOIZEZ

Nekane	945 26 91 53
Eduardo	945 14 21 99
Leire	945 27 32 81
Lorena	945 27 10 13
Ainara	945 24 04 42
Ana	945 26 65 95
Eriete	945 29 96 50
Estitxu	945 27 65 07

Idoia	945 24 47 79
Lorena	945 27 10 13
Montse	945 26 78 12
Ainara	945 23 38 28
Txaro	945 28 08 85
Maider	945 24 90 62
Arrate	945 25 64 01
Patrizia	945 13 93 37
Uxue	945 24 37 11

ARRATSALDEZ

Oihana	945 25 30 35
Aintzane	945 27 09 64
Iratxe	945 24 51 81
Ainara	945 23 38 28
Lorena	945 27 10 13
Patrizia	945 27 78 19
Leire	945 23 12 23
Maider	945 24 90 62
Estitxu	945 27 65 07

ASTEBURUAN

Olatz	945 25 61 20
Montse	945 26 78 12
Arrate	945 25 64 01
Patrizia	945 13 93 37
Leire	945 23 12 23
Jose Angel	945 27 62 14
Saida	945 26 58 05
Idoia	945 24 47 79
Maider	945 24 90 62
Belen	945 13 65 10
Monika	945 13 86 21
Itziar	945 13 86 21
M. Jesus	945 13 54 35
Estitxu	945 25 99 60

GAUEZ

Esther	945 27 84 57
--------	--------------

Geu Gasteiz ez du sail honetan sortzen diren harremanen ardurarik hartzen



daude, baina nola? Onartuko litzateke gazteleraz ESTE jarri beharrean EST jarriko balu? Edota SUREn ordeaz, SU agertzea, ESTEren ordeaz, HESTE... eta halakoak? Hainbeste kostatzen da hitzak euskaraz ondo idaztea ala? Zaindu ditzagun hizkuntzak, zaindu dezagun euskara!!!

E. B. Z.

OLARIZU MENDI

HERRIKO TABERNA

JOSE URUÑUELA
KALEAN

GASTEIZKO

IRUBIDE

RAMIRO DE MAEZTU
KALEAN

HERRIKO TABERNA

HERRIKO TABERNAK

ALDE ZAHARRA

"SAN FRANCISCO JAVIER" KANTOIAN



Edorta Sanz

Zorionak Alaves!!!

Urtean zehar egindako lanak merezi izan du eta gure hiriko taldeak 1. mailan jarraituko du datorren denboraldian. Zorionak, beraz, jokalariei, Maneri, eta zale sutsu eta tinkoei!! Eta Carmonak, "burdinezko gizona", fisikoki berdin segi dezala, partidu guztietako minutu oro jolasten. Datorren denboraldian gehiago eta hobeto!!!

Geu Gasteizko lagunak

Geu-Azoka

SALMENTAK

49c.c.ko ziklomotorea dut salgai. Salneurria: 13.000 pta. Goitik beherako konponketa behar du. 945 14 54 90.

Euskarazko hiztegia. Hiztegia 2000. salgai daukat. Batere erabili gabea dago, berri-berria. 2.000 ptan saltzen dut, dendetan 3.000 pta. balio du. Tf.: 945 28 10 67.

Paseoko bizikleta salgai. TREK markakoa, SIS shimano kanbioak; 18 abiadura; bost urte dauzka eta egoera onean dago. Prezio erdian saltzen dut. 28.000 ptan. Tf.: 945 28 10 67.

CENTON markako tripodea salgai. Oso handua eta sendoa da, ia batere erabili gabea. Berri berria dago, pol-tsa eta guzti. 8.000 pta. Nire beharretarako gehiegi delako saltzen dut. Tf.: 945 28 10 67.

CANON 1000 F bi objetiborekin 35-80mm / 80-200 mm salgai. Oso modernoa aukera askorekin. Oso ondo dago, kufiziagatik aldatu nahi dut. 40.000 pta. Tf.: 945 28 10 67.

Antzinako txanponen bilduma saltzen dut, baita gehiago ere. Mende honetakoak eta nazio anitzekoak ere badauzkat. - 945 14 54 90.

Lanpara bat dut salgai sarreran ipintzen den kristaltxo asko duen horietako dotore bat. Oso ona da. 945 22 73 03 Maite.

Aktiboan dagoen harategia alokatzen da. Esparru zabala da eta ondo prestatuta dago. 945 24 08 65 Ana.

DEIAK

Ohiko osasun sistemak asetzen ez bazaituzte, zafoz Sumendi osasunaren autoegestioaren aldeko elkartera 945 22 65 03.

Agurrak, saldu edo erosi nahi duzuna... idatzi postaz: Pedro Asua, 2. 3.a faxa. 22 21 53

Ez hago bakarrik!! Hator Gay-tasunara. Informazioa, hitzaldiak eta eztabaidak, psikologi, sexologi eta leae aholkularitza... Bilerak asteazkenero. 945 25 77 66.

Esperanto Elkartea. Hizkuntza txikiak maite dituzulako, esperantoz mintzatzen gara. Zapatari kalea, 29. behea.

BESTEAK

Euskal Filologiako ikasle bat naiz eta datorren ikasturtean umeak zainduko nituzke. 20 urte, Gipuzkoakoa eta eta haurrekin ondo konpontzen naiz, lehengusuekin behintzat bai. Telf. 943 75 24 67. Egoitz.

Laredon apartamendua alokatzen da uda honetan, hondartza ondoan. 943 79 52 80. Karmen.

Pertsona euskalduna behar da 2 ume zaintzeko, 16:30etatik 18:45etara. Hilean bi asteartetan eguerdian ere bai (12:30etatik 18:00ak arte). Gaez deitu 945 24 55 40 telefonora.

Umezain euskalduna behar da Gasteizko Lasarten. Interesatuak deitu 945 147 417 telefonora 15:00etatik aurrera.

Datorren ikasturtean ume bat zaintzeko pertsona bat behar dut, orduren batean goizez eta ordu batzuetan arratsalde. Maite. 945 22 73 03

Bilbora edo Galdakaora egunero joaten den pertsona baten bila nabil gastuak konpartitzeko. 945 24 92 36.

2. D.B.H.ko matematika eta ingelesa euskaraz ematen dituen irakaslea behar da martxotik irailera, oinarritik hasteko. Maribel, 945 172 850.

erosotasun guztiak zure esku

bakarrik 14.900 pta.n

Multilens lente-kaxa 2, disoluzio bakarreko pote 2 eta lenteak eramateko kutxa 2. Estreina itzazu hilero eta froga ezazu zein erraza den horiek edozein jardueratan erabiltzea. Eskura ezazu zure 6 hilerako packa eta eraman ezazu koltxoneta zoragarri bat opari moduan.*

CIBA Vision.

Travel Club txartelarekin puntu bikoitzak lortu ahal izango dituzu



ZERBITZU OPTIKOETAN
1a

MENDIA OPTICA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

Liburutegi Ekologikoa



Irailean zabalduko da. Zapatarien kaleko 93. zenbakian Euskal Herriko lehenengo liburutegi ekologikoa. Gaia talde ekologistaren -lehengo GEA- ekimenez sortu da eta elkarte horren liburu eta materiala izango du oinarri, guztira

3.000 bat liburu eta aldizkari. Liburutegia egunean zortzi ordutan egongo da zabalik eta materiala kontsultatzeaz gain, maileguan hartu ahal izango da, baita Internet zerbitzua erabili inguru giroa eta ekologiarekin zerikusia duen informazioa bilatzeko.

Liburutegia osatzen duten publikazioen artean ekologia arloko liburu tekniko eta bereziak daude, baina baita gaiari buruzko ideia zabala ematen dutenak eta haurrentzakoak ere. 90 hamarkadaren hasierako urteak baino lehen argitaratutako materiala dute ekimenaren bultzatzaileek batez ere, baina azken urteetan kaleratutakoekin bilduma ona borobiltzeko asmoa agertu dute.

Liburutegiaren inaugurazio ofiziala ekainaren 9an egin zen, baina ez da jendearentzat zabalik egongo datorren iraila arte. Denbora horretan arduradunek sailkapen lana egingo dutela adierazi zuten.

Elkartasuna

Ekainak elkartasun ekimen biren berri utzi du Gasteizen. Batetik, Gizakien Lurra ize-neko GKEak Beningo haur bat ekarri du Arabako hiruburura begian egin behar zaion ebakuntza egiteko. Bestetik, Udalak zortzi milioi pezeta eman ditu Kubara botikak bidaltzeko.

Benindik Gasteizera etorritako Farid Boussari mutikoa pasa den otsailean iritsi behar zen Euskal Herrira, baina bere herritik ateratzeko arazo diplomatikoak izan zituen eta ebakuntza ia lau hilabete atzeratu behar izan da. Txagorritxun egingo diote begiko tumorea kentzeko behar

duen ebakuntza.

Gizakien Lurra GKEak aurten bertan beste ume afrikar bat ekarri zuen Gasteizera begian zuen gaitzaz sendatzeko.

Gasteizko Udalak berriz Estatu osoan abian dagoen Medicuba ekimenarekin bat egin du 8.000.000 pezeta emanez. Ekimenaren helburua Kubara zeptazirina deritzan produktua bidatzea da, Estatu Batuek ezarritako blokeo ekonomikoaren ondorioz Karibeko herrian duten botiken urritasunari aurre egiteko. Zeptazirina antibiotikoak egiteko beharrezkoa den lehengaia da.

Udalak emandako diruarekin 30 kilo zeptazirina erosiko dira eta gramo bakarra antibiotiko dosi bat egiteko nahikoa da. Kuban lehengaia lortzeko arazoak badituzte ere botikak sortzeko baliabideak dauzkate.

TXUSTA
TABERNA

ESPEZIALITEA:

BAT ERE EZ

Mateo Moraza kalea GASTEIZ

Xabier
taberna

musika ona
eta giro ezin hobea

Aitzogile kalea (KUTXI), 23



eguneko menua

OSPITALEAN preso



Madrilgo Kartzela Zuzendaritzak eta Gasteizko Barne Sailak duela hilabete batzuk Txagorritxuko ospitalean zabalduetako gaixorik dauden presoentzako zerbitzu bereziak ez dituztela gartzelaratuen eskubideak betetzen salatu dute Salhaketak, SOS Arrazakeriak, Senideakek eta LABek besteak beste.

Salaketa egin zuten taldeek zerbitzuak intimitate eskubidea erabat urratu egiten duela azaldu zuten. Izan ere, zerbitzuko arautegiak gaixoa medikuekin dagoenean polizia aurrean egon behar dela zehazten du. Bestetik, gaixoei ezin diete herizain eta medikuei beraien kabuz deitu, zaintzen dagoen polizia deitu dezan eskatu behar diete, eta horrek erabakitzen du ospitaleko pertsonalari deitu ala ez; presoak komunean ere ezin dira bakarrik egon.

Eusko Jaurlaritzako Barne Sailak Txagorritxuko presoentzako zerbitzuan dauden ertzainei akatsak zuzentzen saiatu daitezela eskatu badie ere, salaketa egin dutenentzat eskera hori ez da nahikoa eta arazoa konpondu bitartean zerbitzua ixtea exigitu dute.

Txagorritxun dagoen zerbitzuaren oso antzekoa daukate Basurtoko ospitalean ere.

LAUTADAK komunikazioaren TRENA galduko du



rabako Lautadako herrietako biztanleen ekimen bati erantzunez 1.200 sinadura bildu dira Miranda de Ebro eta Altsasua bitarteko tren kendu ez dezaten eskatzeko. Izan ere, RENFEk Lautadako herrietako tren zerbitzua uztailaren lehen kentzeko asmoa agertu zuen Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza galdu eta gero. RENFEk eta Eusko Jaurlaritzak adierazi dutenez, trenak erabiltzaile kopuru urria du eta zerbitzua mantentzea ezinezkoa da, gainera Lautadako herritarrek beste garraio bideak erabili ditzakete Gasteizera etortzeko.

Sinadura bilketaren bultzatzaileek ukatu egin dute beste garraio biderik dutenik Gasteizera etortzeko eta Dulantzi, Agurain edo Araian adibidez autobus zerbitzurik ez dagoela salatu. Beraien ustez, honen guztiaren atzean Abiadura Handiko Trenaren aldeko apustua dago: AHT hirien arteko zerbitzua baino ez du ematen eta egungo tren sarearen desegitea ekarriko du, herri txikien isolamendua larriagotzen.

LIBURUDENDA

axular



Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ

MARRAZKIAK · KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20

Arabar bonbak

Gerrarako erabiltzen diren lehergailuak egiten dituzten lantegiak moldatu eta beste ekoizketa mota bat egiteari ekitea da ekainean Araban aurkeztu zen Moldaketa taldearen helburua. Moldaketak herrialdean gerrarako tresnak ekoizten dituzten 30 bat lantegi daudela jakinarazi zuen eta Expal enpresaren kasua jarri zuten adibide.

Expalek dagoeneko debekatuta dauden pertsonen aurkako bonbak egin izan ditu, Irakek Araban egindako karkasadun arma kimikoak erabili zituen Iranen aurkako gerran eta Turkiako Gobernuarekin 4.000 milioi pezetako hitzarmena sinatu berri du.

Moldaketak gizartea eta erakundeen hipokresia adibidetzat jarri du azken kasu hau, Euskal Legebiltzarreko egoitza Kurduen Asanbladari utziko zaion bitartean Arabako enpresa batek Turkiako Gobernuari 14.000 lehergailu bidaliko baitzizkio, bomba horiek kurduen aurkako gudan erabiliko direla jakinda ere.

Moldaketa Expalen Enpresa Komiteari gutuna bidali dio bere aldarrikapenen berri emanez. Taldeak lantegian lanposturik galdu gabe ekoizpena aldatzeko aukera aztertu eta ikerketaren emaitzak bidaliko dizkiola jakinarazi dio Komiteari.

Europar gerra tresnen ekoizpena aldatu duten lantegiak daudela jakinarazi zuten, batez ere Ekialdeko Alemanian, eta tankeak egitetik traktoreak eta aerogeneradoreak egitera pasatu dira langileak. Horren bilmoldaketa larria ez, baina Arabako hainbat enpresak arma industriarekin harremanak izan eta gero ekoizpenari beste norabide bat eman zioten, BH, Orbea, Alfa eta Grapadoras El Casco besteak beste.

Gerrarako tresnak ekoizten dituzten lantegien aurka ekiteko bi arrazoi aipatu zituzten Moldaketako bultzatzaileek. Batetik, giza bizitza suntsitzeko helburua duen zerbaiten kontra joateko arrazoi etiko eta moralak. Eta bestetik, arrazoi ekonomikoak. Arma industriak diru iturri garrantzitsua dela pentsatzen bada ere, taldeak dirua ez baino zorra sortzen duela azaldu zuen: "Kontrakoa badirudi ere, armak ez dira saldu eta erosten. Ekoizten denaren oso portzentaia txikia saltzen da eta defizita sortzen dute, gehienak Estatuak erosten dituelako".

Obra-hondakinen arteko poteoa



Ekainaren 7an hasi ziren Aiztogileen kalearen zolaketarako Udalak onartutako lanak. Udaleko ordezkariak lanen data nego-

ziatu daitekeela esan dute, baina alde horretako berriketari ekiteko nolabaiteko presa zutela onartu ere. Kale baten moldaketa lanek beti dakartela eragozpenen bat azpimarratu da Udaletik, baina Alde Zaharreko biztanle, dendari eta tabernetako jabeek gogor kritikatu dute Udalak lanak hasteko aukeratutako data. Alde Zaharreko dendari eta tabernariak uda salmenta gehien duten urtaroa dela gogoratu zuten eta izango dituzten galerak zehaztea zaila dela izan arren, egon egongo direla ziurtatu zuten. Gainera "hiriko beste kale batzuetako lanetan gertatu dena jakinik, Santiago eguna eta Gasteizko jaietan ere horrela egongo garela beldurra dugu" esan dute dendari eta tabernariak.

Gasteiz Txiki Auzo Elkarteke ordezkariak berriz, Udalak Aiztogileen kaleko lanak eta auzoan egin beharreko ekimen guztiak biztanle eta erakundeen artean negoziatu eta zehaztuko zirela askotan esan badie ere, emandako hitza ez dutela bete azaldu dute. Udalari biler bat eskatu diete egingo diren lanei buruzko zehaztasunak eman eta epeak beteko direla ziurtatzeko.

Lanari Ekin

Euskararen normalizazioaren aldeko lanean hasteko gizartearen atxekimendua eta dirua lortuta, abian jarri du Kontseiluak Euskararen Plan Estrategikoa. Lanean hasi ahal izateko egin zuten dirua biltzeko kanpainiak, "Ordu bat akordioaren alde" kanpainiak 181 milioi pezeta bildu ditu, aurreikusi baino 60 bat gehiago eta lehenengo urteko plan-gintza betetzeko behar direnak baino ia 70 gehiago.

Kontseiluak proposatutako konpromisoari baietz esan zioten 647 agente sozialak 23 taldetan banatuko dira lan egiteko eta lehenengo eginbeharra gizartearen arlo bakoitzean euskarak duen egoera zehaztea izango da.

Egoera aztertuta, irailean arlo bakoitzean euskararen normalizazioa lortzeko hartu behar diren neurrien erizpideak ezarriko dira, eta 2000. urteko apirillean lan talde bakoitzak erabakitakoari hausnarketa hasi beharko du, egin beharrekoak sailkatu eta lehentasunak ezartzeko.

Kontseiluaren arduradunen ustez prozesuak bi giltza izango ditu, batetik giza talde eta erakundeen arteko elkarlana, eta bestetik gizartearen partehartzea.



Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"



Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25

Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza • GASTEIZ


LA BLANCA '99 JAI ZURIAK?

Gainean ditugu jada Andre Maria Zuriaren jaiak, eta aurten badirudi zuriak orbanak izan ditzakeela "blusen" kontua dela eta. Dena den, gai hau airean dagoenez, uztailen zehar erne ibiliko gara jakiteko azkenean aurtengo festak nondik nora joango diren.

Musika -La Oreja de Van Gogh, Reincidentes, Triki Festa, Oskorri, Salsa eta Merengea, Jazz-a...-, zezenketak -gustuko dutenentzat, jakina!-, zezensuzkoak -zalapartatsua bai, baina aurrekoa baino askoz ere hobea, ziur!-, antzerkia -Lourviers taldeak emango dio hasiera antzerki egitarauari abuztuaren leian-, pailazoak eta txotxongiloak, hain gurea den Gargantua -poza zein beldurra eragin dezakeena-, erraldoi eta buruhandiak, Zeledoi Txikia, euskal gunea Aihotz plazan dira, besteak beste, egitarau ofizialak dakarzkigun ekitaldietako batzuk. Baina egitarau ofiziala ez da aukera bakarra festetan, txosnen eremuak berea ere -eta ohi bezala, berezia- eskaintzen digu eta. Fermin Muguruza?, Amparanoia?... Adi egon eta ez agurtu Gasteizko jaiak txosnak ezagutu gabe!!!

E. B. Z.

TREBIÑOREN auziaren giltza




Txalaparta argitaletxeak Roberto González de Viñaspreren "Trebiño. Claves para un contencioso inacabado" liburua plazaratu berri du. Egileak auziaren oinarrien azterketa objetiboa egin nahi izan duela azaldu du, irakurleak iritzia propioa osa dezan.

González de Viñaspre bilbotarra da eta Trebiñon bertan bizi da. Auziaren oinarria zein den argi du egileak: arazo administratibo hutsa zena arazo politiko bihurtu izana. Trebiño fisikoki kokatuta non dagoen ere, Araba eta Euskal Herrian alegia, auziaren konponketa mantsotu eta atzeratu duela ulertu daiteke González de Viñaspreren hitzak entzunda.

Arazoaren irtenbideari buruz hitz egitean, arrazoi politiko, ekonomiko eta kulturalak garrantzizkoak badira ere, idazleak trebiñotarren borondatea horien guztien gainetik jartzen ditu.

UDA Trebiño Elkarteko kideen laguntza izan zuen Roberto González de Viñasprek liburuaren aurkezpenean. UDAko ordezkarien iritziz plazaratu berri den liburuak hutsune bat beteko du eta auzia sakonean ezagutzeko laguntza ezinhobea izango da.

EUSKARA araban



Koldo Zuazo EHUKo irakasleak idatzitako "Arabarrak euskararen herrian" liburua kaleratu du Arabera argitaletxeak. Koldo Zuazoren liburuak argitaletxeak herrialdeari eskainitako Araba sailari hasiera eman dio.

Irakasleak azaldu duenez, liburua arabarren gaitasunak idatzi zuen eta beraz, gai teknikoetatik ihesi edonor ulertzeko moduko irakurgai egin du. Liburuak euskararen historia laburra egiten du lehenik eta behin, eta ondoren, Araban hitz egin izan den euskalkiari buruzko azalpenak ematen ditu.

Koldo Zuazoren iritziz, liburuak hutsune bat beteko du, gai honi buruzko liburuak ez dagoelako euskaraz. Gainera, oso une egokian datorrela esan du: "arabar gizarteak euskararen gaian aurrera egitea erabaki duen unean".

XIXILU
JATETXEA

AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 - GASTEIZ

IRUSTA

poteo eta pintxoak

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33
GASTEIZ



Dagoeneko uda gainean dugu eta horrexegatik denok oporrak prestatzen gabiltza. Hainbat eta hainbat proposamen bururatzen zaizkigu, eta horietako bat udalekuak dira. Honi buruz mintzatzeko kalera irten gara eta zenbait hirilagunen iritzia jaso dugu.

1.- Ze iritzi duzu udaletxeak gazteenentzat prestatzen dituen udalekuei buruz?

2.- Zer dela eta bidaltzen dituzte gurasoek euren seme-alabak udalekuetara?



Jose Mari Duque.
Frantzes filologian lizentziatua

1.- Ondo iruditzen zait, nahiz eta, nere ustetan, prioritateetako bat ez izan.

2.- Modu egoki bat da gende berriarekin harremanak sortzeko. Horrez gain, umeek bere gurasoekin egoteko ohitura hori pixkanaka kentzen dute.



Enrique Ruiz de Larramendi
Jubilatua

1.- Oso ondo, bikain deritzot.

2.- Udalekuetan jende ugari ezagutzen dute eta bide batez leku ezezagun eta berriak ikustatzeko aukera paregabea dute.



Carmen Ocariz. Jubilatua

1.- Primeran iruditzen zait, batez ere, oporretara joateko aukerarik ez daukaten horientzat. Horrelako tokietan haurrek oso ongi pasatzen dute jolasean, sua eginez...

2.- Seme-alabak beste ume batzuekin erlazionatzeko oso baliogarriak dira leku hauek. Komenigarria dela uste dut gurasoekin duten lotura hori askatzen joatea.



Sofia Torquemada
Irakaslea

1.- Udalekuak aberasgarriak dira hainbat arlotan: batetik, jende ezezagunarekin topo egiteko leku bat izan daiteke. Baita ere, eta euskeraz diren horietan batez ere, hizkuntza indartu dezakete; Gasteizen euskaraz mintzatzea zaila suertatzen baita.

2.- Gurasoek beraien umeek ondo pasatzearren bidaltzen dituzte modu honetako udalekuetara.



Iker Bilbao. Ikaslea

1.- Egokia iruditzen zait mota honetako udalekuak antolatzea. Normalki, haurrek izugarri ondo pasatzen dute. Gainera Udaletxeak asko jartzen du bere aldetik kanpamendu hauek aurrera egin dezaten.

2.- Gurasoek arrazoi desberdinengatik bidaltzen dituzte seme-alabak udalekuetara: nere ustez, umeak hamabost egun kanpora irtetzen badira, gurasoek bere bizitza beste era batera antolatzeko aukera izango dute.



Xabier Garitano
Ikaslea

1.- Udalekuak antolatzea ideia interesgarria da. Haurrek lagun berriak egiten dituzte, ingurugiroaz jabetzen dira... Gainera nahiko merke irtetzen dira.

2.- Suposatzen dut gurasoek arrazoi desberdinak izango dituztela beren umeak kanpamenduetara bidaltzeko. Dena den, helburu nagusienetarikoa haurrak ondo pasatzea da.



KAMISETAK:

KUKUXUMUSU, KOT,
PERRETIXIKOAK BASOAN, BARABÚ...

OPARIAK ETA EUSKAL OROIGARRIAK

EUSKAL OIHALAK: MANTELAK, ZAPIAK...

NONBAIT

Loma jeneralaren plaza, 5
Mateo de Moraza, 7

GASTEIZ

Tel./faxa: 945 232229
nonbait@nonbait.com

ZURE EUSKAL DENDAK

Oharra: Eneko Paolatik bidalitako gutuna, Etna sumendiaren inguruan ziharduena, ez zaigu heldu. Hona hemen, beraz, Slovenijatik bidali diguna.

Kaixo lagunak!

Lau hilabete pasa dira eta Europan zehar jarraitzen dut. Momentu honetan Hungarian nago, Kisvárdá deituriko herri batean.

Azken bolada honetan gauza asko gertatu dira, denak onak. Italia zeharkatu nuen; iparraldean nahirik azkar eta zuzen, nekazari baten hainbeste eliza, museo eta "kultura" ikusteaz. Florencia, adibidez, egun bakar batean ikusi eta ospa egin nuen, "beee" esan aurretik... Venezia, ordea, oso gustatu zitzaidan; lagun batzuen hurbidea neukan eta gustura egon nintzen bertakoekin. Gauean kaletxoetatik galduta eta argazkiak egiteko une aproposak topatu nituen.

Triestetik Esloveniara pasatu nintzen aldaketa handia igarritik. Italian egon bitartean italiarra apurra ikasi ahal izan nuen, hangoei ulertzeko edota zerbait azaltzeko ez nuen apenas arazorik izan ofi, baina Esloveniatik aurrera elkarri ulertze fari erabat desberdina izan da., ingelesez batzuetan, keinuz bestetan.

Eslovenian, basoz beteriko lurraldea, oso gauza bitxia gertatu zitzaidan: Ljubljana-tik atera eta Novo Mesto-ra iritsi asmoa nuen. Bidean nengoela atzetik beste txirindulari bat gerturatu zitzaidan, eta "jai!" -hango agurra, gure mendiko "epa"- esan ondoren, "where are you from?" (ingelesez hasieratik jabetzeko zein hizkuntzatan jarrai dezakezun hitz egiten...), "from here, from Eslovenia"... "Orduan etxetik ateratzen ari zara?" -ez zuen horren itxuririk-, "ez, ez, hiltzen ari naiz; munduari buelta osoa eman diot eta gaur hiltzen naiz etxera, Novo Mestora. Aho bete hortz utzi ninduen. Pasaportea erakutsi eta bertan ez zegoen toki bat bera ere beste zigilurik jartzeko: Iran, India, Australia, Txile, Kanada, Erresuma Batua... Izugarria! Ni apur bat "txiki" sentitu nintzen nire bidaia asmoak zeintzuk ziren azaldu nionean, "nire asmoa Istanbulera iristea da..., gero ez dakit, hantxe erabakiko dut...". Novo Mestorako bidea elkarrekin egin genuen. Gure ingeleza ez zen oso ona, baina nahikoa elkarri ulertzeko... Noiz, nola, zer, zergatik..., 40 kilometrotan hitz egiten eta hitz egiten aritu ginen. Novo Mestora hildutakoan bere etxera gonbidatu ninduen. Nik ez nuen bere etorrera jaian egon nahi, baina ongi etorriaren jai beste egun baterako prestatua zutela esan zidan. Beraz, ilusio handiz onartu nuen gonbidapena. Luze jo zuen bere etxeko sukaldean izandako solasaldiak; mapak, bidaia, gertakizunak, bizikletak... ordu txikiak arte. Hurrengo egunean Zagreb-era (Kroazia) joateko plana neukan, eta gosaltzen geundela berriro ere bere jaira joateko esan zidan,



"Boian"

handik 4 egunera izango zela, bere jaioterrian, Metlika, herriko festekin batera, "ardoaren festa" hain zuzen. Zin egin nion bertan egongo nintzela ordurako, eta hialaxe egin nuen; presarik ez nuen, orduan Zagreb-era joan eta nire lagunaren festara iritsi nintzen. Aste bete eman nuen berarekin, eta benetan, bidean barrena bizi izandako unerik gogorrenak ez dira ezer holarako pertsonak ezagutzeko parada ematen badizute... Eta tamalez heldu zen bidaia osoan gogor oso suertatzen ari zaidana: agurra. Boian-ek bidaian erabili gustuko zuen materiala oparitu eta Euskal Herriko bazterrak bizikletaz elkarrekin egiteko etorriko zela agindu zidan. Bihozminez iparralderuntz abiatu nintzen eta buelta handia egin nuen Europa Zentraletik: Hungria, Austria, Eslovequia, Txekia, Polonia eta, azkenik berri, Eslovequia eta Hungria. Orain Hungarian nago, Ukrainatik gertu, eta hemendik Errumania. Beste mundu bat dela esan didate... Kontatuko dizuet!

FITXA TEKNIKO: 4 HILABETE; 6.800 kilometro

Eneko Etxebarrieta; e-mail: enekoetxe@hotmail.com

ETAPA HONETAKO HERRI NAGUSIENAK: Trieste-Ljubljana-Novo Mesto-Ptuj-Bad Radkerslows-Bajánsenye-Szombathely-Köszeg-Oberpullendorf-Sopron-Petroneli-Bratislava-Malacky-Kuty-Hodonin-Uherské Hradisre-Roznov-Frydec Mistek-Pszczyna-Oswiecin-Cracovia-Bochnia-Limanowa-Nowy Sacz-Krynica-Lipamy-Presov-Kosice-Sena-Satoraljajhely-Karcsakisvárdá.



GASTEIZKO BATZOKIAK

ZAHAR SENDO ZINDO

ABENDANO ERDIALDE LAKUA ZARAMAGA

**Jean-Francoise
Saure:**

"LIBURUA proiektu kultural baten barruan kokatu behar da"



Bi urte eta erdi bete dira lanean **Legution** kokatuta dagoen **Informart** argitale-
txeak euskarazko lehengo liburua argitaratu zuenetik. Ordutik hamahiru gehiago
plazaratu dira eta beste bi azken ikutuak eman eta inprenta bidea hartzeko daude ia.
Merkatu urri baterako argitaletxe asko dauden herri honetan **Jean-Francoise
Saurek**, Informarteko zuzendariak aurrera egin eta ekarpenen bat egitekotan bere
bidea zein izan behar den guztiz zehaztuta du.

Gasteizen bizi den bretoiak azaltzen duenez, Infomarten lanak hiru lerro ditu.
Batetik argitaletxeak **Humanismoa Bilduma** deitu duena, idazle klasikoen testu
laburrak biltzen duen lerroa, bestetik komikia eta umorea lantzen duena eta hiru-
garrenik erakundeekin batera liburua proiektu kulturala bihurtzeko saiakera.
Horretaz gain, naturari buruzko liburua, Gasteizko gida eta beste hainbat lan ater-
ratzeko beta ateratu du Informatek. Humanismoa eta umorea ardatz duten bi lerroak
nahikoa hartzaile desberdinak dituzte printzipioz, irakurle esparrurik handiena
hartzeko asmoz.

Klasikoetarako atea

Humanismoa Bilduma euskara maila altua duten irakurleei zuzendutakoa da eta
hainbat idazle klasikoen lanera iristeko sarrera eskaintzen du. "Testu hauetako ba-
tzuk ez daude gaztelerara itzulita eta euskaraz idazle hauen testu batzuk aurkitu
daitezke, baina oso lan sakon eta luzeak dira. Jendeari kosta egiten zaio **Gautier**
edo **Baudelaire**ren 400 orrialdedun liburu bat erostea, baina hauen testu labur bat
irakurri eta gero gehiago ezagutzeko gogoia piztu ahal zaio".

Gaiari begira "intrigakoak eta psikologikoak direla esan daiteke. Oso irakurte-
rrezak eta atseginak". Itzulpenaren ikuspuntutik sona handiko izenak aurkitzen
dira: **Mikel Garmendia**, **Gerardo Markuleta**, **Pedro Diez de Ulzurrun**,...
Zuzentzaile lanak GEU Gasteiz aldirikariko kolaboratzaile izandako **Inazio Lopez
de Aran** egiten ditu. Saurek azaldu duenez, garrantzi handia ematen zaio itzul-
penaren kalitateari eta horregatik Informatek asko zaintzen du itzultzaileekin duen
harremana eta hauen lana azpimarratzen saiatzen da. "Argitaletxe batzuetan barru-
ko orrialdeetako izkina batean jartzen dute itzultzaileen izena. Guk azalean jartze-
az gain hitzaurrea egin dezaten eskatzen diegu; azken finean, argitaratzen den
lanean parte garrantzitsua dutela uste dugu".

Bertako lehengaia esportatu

Lan taldearekin sortu nahi den giro onak islada duela uste du editore bretoiak:
"Arabian euskarazko lanak plazaratzen dituzten argitaletxe asko ez dagoenez,
hemengoak diren edo hemen bizi diren oso maila oneko itzultzaileak prest egotea
errezagoa da eta maila bikaineko lanak lortzeaz gain oso era atseginean lan egi-
ten dugula uste dut".

Arabian dagoen literatur eta itzulpengintza maila kontuan hartuta eta Jean-
Francoisek atzerrian dituen kontaktuez baliatuta hemengo idazleen lana European
ezagutarazteko helburua jarri dio bere jarduerari. "Adibidez, **Mikel Garmendiaren**
testuak eta **Juan Carlos Ziordianen** marrazkiekin itzulpengintzari buruzko liburua
prestatzen ari gara eta Europako hainbat editoreri ideia gustatu zaie, liburua argi-
taratu beharrean kasu honetan eskubideak saltzeko asmoa daukagu". Ziordia gas-

**1995. urtean jarri zuen
Jean-Francoise Saurek
Informart editoriala mar-
txan eta bi urte geroago
argitaratu zuen euskaraz-
ko liburu bat lehen aldiz.
Ordutik hamalau liburu
plazaratu ditu euskaraz,
gehienak itzulpenak.
Infomarten lan esparrua
hala ere nahiko zabala
da, lan editorialaren oso
ideia zehatza eta bere-
zia duelako Jean-
Francoise Saurek; bere
ustez, liburu bat proiektu
kultural baten barruan
kokatu behar da.**

teiztarra eta Garmendia gasteizartuaren lanak gizarte gaiei buruzko umorezko bildumari hasiera emango lioke.

Izan ere, beste irakurle multzo handi batengana iristeko aukeratu den bidea umorea da, eta horren barruan komikia landu du Informatek dextente orain arte, komiki klasikoa, "Komikia euskara ikasten ari den jendearentzat aproposa izateaz gain, beste jarraitzaile asko ditu".

Elkarlana

Kalitatezko marrazkiak prezio esku-ragarrietan jarri ahal izateko atzerriko hainbat argitaletxeekin elkarlana gartu dute Informaten. "Marrazkien esku-bideak erosi eta itzulpenak egin eta gero euskaraz, gazteleraz, frantsesez, ingelesez, alemanez, portugesez eta danieraz atera genuen liburua, editorialak elkartuz, eta *Eslovenian* inprimatu genituen guztiak batera. Horrela gastuak murriztu egiten dira". Elkarlan horren ondorioz "Caatinga" argitaratu

zen, irakurle euskaldunentzat **Koldo Biguri** irakasleak itzulita.

Elkarlana kasu batzuetan behar ekonomikoa izateaz gain, lan egiteko filosofia da Saurerentzat: "Ez dut %100era komertziala den proiektu bat nahi. Ez dut uste liburua masifikaziorako produktua denik." Eta beharrezko elkarlan horretan erakundeek zereginik dutela aldarrikatzen du bretoiak. "Infomartek Aramaioiko Udalarekin egindako lana behintzat oso positiboa izan zen guztientzako. Bidaiei buruzko literatur lehiaketa bat antolatu genuen, guk alde teknikoa hartu genuen geure gain eta Udalak alde instituzionala. Liburuak, lehiaketa irabazi zuten testuak, herri baten garapen eta kultura proiektuaren barruan sartzen dira horrelako ekimene bidez".

Laster kalean

Informaten ziguilarekin argitara emango den hurrengo liburua Nafarroa du gaitzat. Sei atal izango ditu liburuak, Nafarroako eskualde bakoitzari buruzko bana eta atal bakoitzak hainbat zati: euskarak inguru horretan bizi duen egoera, euskalkiaren ezaugarri nagusiak, bailarako hiriburuaren aurkezpena, bertako herritarra den pertsonaia famaturen baten berri ematen duen atala eta ingurukoa den errezeta bat. Testuak **Orreaga Ibarra**, UPNAko irakasleak egingo ditu eta marrazkiak **Patxi Gallegok**.

Azaroa aldean egongo da salgai, "eta azarorako amaitzen ez badugu martxoan edo. Liburu polita izango da, guztiek gozatzeko moduko lana eta ez dut Gabonetarako ateratzen diren guztien artean galtzerik nahi. Beraz, presarik gabe."



Leire Lopez de Aberasturi

Edorta Sanz.




BREITAINIATik Euskal Herrira

Bide luzea egin du Jean-Francoise Saurek Britainiatik Gasteizera iristeko, beti ere kultura eta aniztasun kulturean oinarritutako lanak egiten. Jaioteritik, Britainiatik ezagutzen du Saurek kultura eta hizkuntza ezberdinak elkarbizitzean sortzen den egoera, baina soldaduzkari muzin egin eta Ordezko Zerbitzu Soziala egiteko Ekuatore Gineara kultura zabalpenerako lana egitera bidali zutenean zaletu zen lan horrekin Jean-Francoise Saure, berak konstatzen duenez. Ginean hiru hizkuntza ofizial daude eta biztanle guztiek hirurak erabiltzen dituzte, "hiru gutxienez, alde batzuetan bost hizkuntza daude eta. Egoera ekonomikoa nahiko txarra den arren, eskoletako gelak beteta daude, jendeak ikasteko izugarritzko gogoia du".

Ordezko Zerbitzu Soziala amaituta etxetik hurbilago egon zen lanean, Akitanian, baina kultura anitzdun inguruetan lan egiteko grina barneratuta zuelako edo, Pirinioetara hurbiltzea erabaki zuen, agian Ginean bertan ezagutu zituen euskaldunekin gogoratuta, eta Gasteizera iritsi zen.



RAFA TEJA ATELIER



"Zetazko eta kotoizko ehunak eskuz margotuak" - ZAPIAK -

Arantza Arregui

Ramiro Maeztu, 1 · Tfnoa.: 945 13 33 59

vitrales



MIKEL DELIKA

BEIRATE ESTUDIOA

Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ

ARTEPAN



Artisan
Okindegia eta
Goxotegia

Jesús Guridi kalea, 2

Tfnoak: 945 27 88 88 - 28 72 37


01005 GASTEIZ

HAUEK ERE BAI...



...esan zeuk ere
BAI EUSKARARI!!
izena eman
euskaltegi eta barneetegiari

Bizikleteroak



Gasteizko Kaleetan

Txirrina erabiltzearen aldeko elkartearen ideia aspalditik zuen Rubenek buruan bueltaka, eta berak bezalaxe, Gasteizko hiruzpalau lagun gehiagok ere. Iazko iraila aldera biltzen hasi ziren, talde txikia osatu zuten, eta guztion artean, zituzten ideiei forma emateari ekin zieten. Ruben Ziordia izan zen Gasteizko Bizikleteroak elkartearen hazia jarri zuen aurrenekoa, izan ere, Interneten Gasteizen bizikletaren aldeko elkarte bati buruzko Web gunea eta posta elektronikoa sortu zituen.

Azkar asko hasi zen bera bezala bizikletaren erabileraren alde zeuden pertsonen mezuak jasotzen. Ondoren elkar eza-gutzeko bildu ziren eta apurka-apurka elkartea jaio zen eta hila berean legala bihurtu, bai Eusko Jaurlaritzan bai Gasteizko Udalan. *"Oso arraroa zen inguruko hirietan eta estatuko hiri gehienetan gurea bezalako elkarteak egotea, hiri askotan 3 eta 4 ere badira, eta Gasteizek bat ere ez izatea"*, azaldu digu

Rubenek. Gainera, Gasteiz, estatuko hirien artean bidegorri kilometro gehien dituen hiri izaki, proposatzat jo zutela horrelako elkarte bat sortzea gaineratzen du Rubenek. Egun, 30bat bazkidek osatzen dute elkartea, gehienak pertsona helduak dira (30 urtetik gorakoak), eta diru-iturri bakarra bazkideen kuotak dira: 1000 pta urtero, 800 gazteentzat eta 500 haurrentzat.

Elkartearen xedea

Oro har esanda, Gasteizko Bizikleteroen xedeak bi dira: batetik,

Bizikleta dute ibilgailu gustuko eta maiteena. Gasteizko kaleetan barrena txirrina garraiobide gisa erabiltzea aldarrikatzen dute, eta baita hiritarrok gehiago erabili dezagun ere. Gasteizko Bizikleteroak elkartekoak dira, eta urtarritik geroztik Bizikletero hauek talde moduan funtzionatzen dute. Ruben Ziordia da elkartearen presidentea eta berarekin izandako solasaldian argi utzi digu zeintzuk diren Gasteizko Bizikleteroen helburu nagusiak: bizikleta ibilgailu bezala oinarri duen bizimodua sustatzea eta Gasteiz, bizi-hiria bihurtzea.

txirringaren erabilpena bultzatzea eta bestetik, Gasteiz hiri hobea bihurtzarekin batera, bizikleteroen eskubideak defendatzea. *"Helburu sinpleak dira, baina gauza anitz egin behar dira oraindik"*, diosku Rubenek.

Orain artean elkarte berriari forma ematea izan da Bizikleteroek izan duten lan nagusia. Baina aurrerantzean bestelako ekimenak martxan jarriko dituztela jakinarazi digu, *"gutxi barru Estibalizera bizikleta irteera bat egingo dugu, egin berri duten bidegorria aprobetxatuz. Bestetik, aldizkari bat argitaratzeko asmoa ere badugu, baina horretarako diru laguntza beharrezkoa da. Eta epe luzera Gasteizko erakundeetan ezagutarazi nahi ditugu gure proposamen eta iritziak"*. Rubenen ustetan orain artean Gasteizen bizikletaren erabileraren alde gauza batzuk egin badira ere, *"ez dira nahikoak, ekimen gehiago eraman behar dira aurrera"*; finean, azken helburua haxe dute bizikleteroek: *"bizikleta garraiobide bezala*



hirritarren eguneroko bizitzan sartzea".

Gasteiz, bizikletarako aproposa

Gasteiz, bizikletaz ibiltzeko primerako hiria dela dio Rubenek: "baditu konpondu beharreko arazoak, trafikoarena esaterako, baina laua da oso, eta hori ezinbesteko ezaugarria da hirian bizikletaz eroso ibiltzeko. Gainera ez da hiri handia eta punta batetik bestera joateko askoz jota 15 minutu behar dituzu". Halere, Europako beste herrialdeekin konparatuta, Gasteizen txirringaren erabilera oso eskasa da. Eusko Jaurlaritzaren inkesta batek dioenez, hemen motorrez eta bizikletaz ibiltzen direnak %0,7 baino ez dira. Europako zenbait herrialdetan bizikletaren erabilera %25ekoa da, eta Holandan por-tzentaia askozaz altuagoa da, %40.

Zeintzuk dira orduan Gasteizen bizikleta hain gutxi erabiltzearen arrazoiak? Rubenek honakoak eman dizkigu: "gehienek eguraldiaren aitzakia jartzen dute, euri asko egiten duela-ko batik bat. Eta horretaz gain, kotxearen sinbologiak ere garrantzi handia dauka, hau da, kotxea mito bat, eta gehienentzat helburu bat da. Gaur egun gazte askoren ametsa kotxea izatea da, eta ez bizikleta.



GASTEIZKO BIZIKLETARAKOekin harremanetan jarri nahi izanez gero, honakoa duzue hel-bidea: Itziar Elkartearen etxea.

Zalburu z/g. (Arana auzoan)

e-mail: bizikleteroak@geocities.com

TLF: 619 881 609

Oinarrian, arrazoi kulturalak daude, kotxea erosoagoa delako eta betidanik kotxea edukitzea izan delako gehienen nahia". Baina bizikleta kotxearen aldean abantaila ugari dituela adibide argi honekin azaldu digu Rubenek: "kotxe batean norma-

lean ez dira 4 pertsona joaten, zenbaki magikoa, estatistiketan ageri dena alegia, 1,8 da, beraz, kotxea bakoitzean batez beste 1,8 pertsona doaz. Aldiz, hiru bizikleta behar dira hiru pertsona garraiatzeko, eta bi kotxe kopuru bera garraiatzeko. Beraz, espazio aldetik, bizikletek kotxeek baino gutxiago okupatzen dute".

Hortaz, txirringa erabiltzea gomendatzen digu Rubenek, horretarako lau arrazoi eman dizkigu: azkarra delako, askatasuna ematen duelako, oso merkea delako eta osasuntsua ere badelako. Azken honi buruz bere esperientzia propioa azaldu digu: "nik, bizikleta egunero erabiltzen dudanetik, nabaritu dut bere onurak. Medikuek beti diote egunero kirola egitea gomendagarria dela, ba hortxe dugu aukera, bizikletan".

Bukatzeko, gasteiztarrok txirringa gehiago erabil dezagun, proposamen bat luzatu digu Bizikletaren presidenteak: "erabil ezazue astebetez bizikleta eta saia zaitezte zuen bizimodua garraibide horretara moldatzen". Aholku ona da, praktikara eramatea baino ez zaigu falta, ezta?



Edurne Begiristain



Edorta Sanz.

ITURRIETA

Sagardotegia



Txotx egin !

Astelehenetik asteazkenera enkarguz.

Ostegunetik igandera zabalik

Arraga auzoa. Tfnoa.: 945 44 53 85 • ARAMAIO

Ka La MUA

TABERNA

Obdulio Lpz. de Uralde
Margolaria,5

Tel.945-22 65 47 • Fax.945-26 50 16

01008 Vitoria-Gasteiz



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

1 x 2 = 2 (2.000 gara / 4.000 izan gaiterzke)

Harpidedun!:

zure aita, ama, anaia, arreba, izeba, osaba, lehengusua, lehengusina, semea, alaba, aitona, amona, iloba, berriamona, berriaitona, biloba, aitagiarreba, amagiarreba, suhia, erraina, lagun eta ezagunak...

Izen Deiturak: _____

Telefonoa _____ Helbidea: _____ Kodea _____


Herria: _____ Jaiotze data: _____ Lanbidea: _____

Kontu zenbakia (20 zenbakiak)

Entitatea _____ Sukurtsala _____ K.D. _____ Kontu zenbakia _____

**... EGIN ITZAZU
HARPEDEDUN**

Geu Gasteiz aldizkaria. Pedro Asua, 2. 3a. 01008 tfnoa.: 945 22 21 53



GAME OVER



ERIK, 7 urte

Makinetan jolasteko irrikan egon eta hasi bezain pronto nork ez du inoiz "Game Over" madarikatuarekin topo egin? Gutariko askok bai, ezta? Ba Erik, gure hileko laguna, neska-mutil asko bezalaxe, txanponak eskuratzen, martiztarrak hiltzen, gaizkileekin borrokatzen.... jokalaria paregabea dugu.

Makina txiki hauek abantaila handia daukate: edozein lekutara eramateko aukera, eta gainera diseinu aldetik eskaintza erabat irekia -gorriak, urdinak, horiak, beltzak, eta abar...-. Bere klaseko lagunekin jokoak aldatzen, ea nork gaintitzen dituen pantaila gehiago edo nork lortzen dituen puntu gehien aritzen da. Gakoa da jokoan ahalik eta denbora gehien bizirik irautea "Game Over" ikusi barik.

Itziar Uriarte Fdz. de Troconiz  Edorta Sanz



UDAN, ZER EGIN?



Urtean zehar uda noiz helduko zain egon ondoren jada hemen dugu, eta bere etorrerarekin batera, mila gauza egiteko aukera: hondartzak, igerilekuak, udalekuak, herrira joan, bidaiak... Denetik! Beroak gogor jotzen badu zeregin aproposena, noski, urtegi, hondartza edo igerilekuetara joatea da.

Uretan eta eguraldiak lagun kirol mota bereziak praktika ditzakegu: piraguak, arraunak, belauntziak, surf-a, wind surf-a...

Honetaz gain, musika atsegin duzuenontzat uztailaren 10ean Gasteizko Jazzaldian oso kontzertu berezia dago haur eta gazteentzat prestatua, partaide bilakatu zaitezke eta...

Beraz, zuek nahi duzuen hobya praktikatu eta hasi bainujantziak gerturatzen, eskuohiala hartzen... Ah! eta kontuz ibili eguzki izpiekin.

GEURE ARTIST

Alexander



Josune



Amaia



Zer dira zuretzat PIRATAK?



IBAN, 7 urte

Piratak barkuetan bizi diren gizon gaizto eta oso itsusiak dira. Lapurtzen dituzten altxorak irletan izkutatzen dituzte eta bere barkuek kalaberek daramatzate.



NAGORE, 7 urte

Irlaz irla doaz barkuetan bere kalabera eta ikurrina piratarekin. Niri ez litzaidake gustatuko pirata izatea jendea hiltzen dutelako.



IBON, 5 urte

Piratak pertsona onak dira, eta hauen nagusia ume bat da. Ikusi ditudan azkenaldia telebistan izan zen eta ezpatekin borrokatzen zuten.



TAK

Ana



**ODON DE APRAIZ
IKASTOLA
(3 urte)**

Patricia






Grff-grff eta Psssss. Gizakiaren beharrak I.



Ide
ate



6. Dancing in Lapuebla.



Ñam, ñam! Hau gosea



S.O.S, ura mesedez!
Arabako Errioxa izateko bitxia, ezta?



Lapueblara trago bat hartzer,
"bertako hegaztia".



**a ona, aizu, baina hurrengorako
ki handiagoa ekarri!**



**Ikastolako gelak kalera, eta baldintzatik
ahalerara, eta ahaleratik subjuntibora.**



Gizakiaren beharrak II.



**Ibilbidean zehar aldapa gora, aldapa behera,
eguzkipean, baina gustura.**



hurbildutako



**Ebroko estropadak, ikuskizun ederra benetan.
Aupa Hernani! Noizko Gasteiz?**

Kometak lau haizetara Arabian

Ipar haizeak lagun, kometek zer nolako aukerak eskaintzen dizkiguten jorratuko ditugu honetan. Adituek diotenez, gurean gehienetan nagusitzen den haizea, Iparrekoa, alegia, onena da kometak mugiarazteko. Garaio, Salburua, Dimako aireportu zaharra, Zarautzeko hondartza... leku egokiak dira kirol honetan jarduteko. Prest baldin bazaude, hemen duzu aukera.



Lau Haizetara Arabako Kometazaleen Elkartea
Telefono zenbakia: 945-228194
Fax zenbakia: 945-265161

Kometazaletasuna ez da gaurko kontua, ezta gutxiago ere. Txinatarrek egin zituzten aurrenekoak, eurentzat kometak zerutik gertu egoteko bitartekoak baitziren. Halere, Arabako Kometazaleen Elkarteko partaidea den Inigo Antiak azaltzen digunez, hori ez zen txinatarren jomuga bakarra, "gerrateetan ere etsaiak non zeuden ikusteko erabiltzen zituzten, kometen indarrez lagun batek hegari egiten zuen eta. Ordutik

gauza ezberdinetarako erabili egin dira, esaterako, Amerikaren eta Europaren arteko lehen irratiaioa egiteko edota arrantza egiteko Malasian". Inigoren hitzek kometazale amorratua dela erakusten dute, "azken urteotan saiatu diren arren, altuerako marka 1919an lortu zen Alemanian, 9.000 metrotan murgildu baitzuten kometa bat. Oso marka zaila da, hariak erraz apurtzen direlako". Gaur egun, kometak zabaltzen

hasiak dira gurean, baina, jaialdirik handienak eta kometazalerik trebe-enak Frantzian (Normandia), Australian, Estatu Batuetan eta Hegoafrikan daude.

Kometazaletasuna Asiatik Europa para Marco Polok ekarri zuen arren, kometek Inigo Antia erakarri zuten seme txikiari kometa erostean, "badakizu nolakoak garen aita-amak; semeari oparitu nion kometak harrapatu ninduen eta

ordutik beste batzuk erosi ditut. Bestalde, Frantzian egon ginen opor batzuetan aldizkari batzuk irakurri nituen. Kometa batekin zenbat gauza egin zitezkeen agertzen zen baitan. Noski, Gasteizera itzultzean lagunei azaldu nien eta 1997an Lau Haizetara Arabako Kometa-zaleen Elkarte sortu genuen". Esan beharra dago hori dugula kometazaleen elkarte bakarra Euskal Herrian eta egun 41 lagunek osatzen dutela.

Bestalde, kometak kirola ez ezik artea ere badira, batzuk benetako artelanak baititugu. Inigok argitzen digunez, "kometak oso itxura ezberdinekin egin daitezke, esaterako, aulki bat edo piano bat. Kometazale asko eta asko arkitektoak eta ingeniariak dira, kometak egiteko planoak erabiltzen baitira. Gurean ere horrela da, baina, guk, gehien bat, kirol arloa lantzen dugu".

MOTA ETA PREZIO UGARI

Kirolari dagokionez, hiru kometa mota daude. Batetik, hari bat dutenak, bestetik, bi eta lau harikoak, eta azkenik, erakargarriak. "Hari batekoak ikusgarriak dira; bikoak, berriz, akrobaziak egiteko ezin hobe-



"badakizu nola-koak garen aita-amak; seme-ari oparitu nion kometak 'harrapatu ninduen' eta ordutik beste batzuk erosi ditut"

ak dituzu eta lagun bat bakarrik, bikotean ala taldean gida daitezke. Bukatzeko, erakargarriak modan daude, horien bitartez sky, fly-surf baitago egiterik edota buggy-z ibiltzerik". Ikus daitekeenez, kometa mota ezberdinak daude, prezioak bezalaxe, "merkeena 2000 pezeta-tan eros daitekeen arren, 100.000 pezetatik gorakoak ere badira" gaineratzen du elkarrizketatuak.

Lau Haizetara Elkarteak ekimen ugari bultzatu ditu kometazaletasuna suspertzeko. Aipatzekoak dira, besteak beste, hilean behin Salburuan egiten den erakusketa, beti hileko lehen igandean, hain

zuzen. Edota joan den urteko urrian antolatutako jaialdia. Horren ildotik, Inigoren hitzak: "Salburua leku egokia den arren, uztalean hego haizea nagusia da Lautadan. Horren ondorioz, aurten-goan Zabalganako parkean ibiliko gara udan. Han mendiska bat dago eta, beraz, froga egingo dugu. Bestetik, urrian egin genuen jaialdian eguraldi kaskarra egin zuen. Hori dela eta, bertan behera geratu zen Estatuko buggy txapelketa. Hala eta guztiz ere, etorkizunean ere beste norgehiagoka batzuk antolatzeke asmoa dugu".

Dena den, euren helburua kirola zabaltzea omen da, "gutako batzuk lehiatzen diren arren, oso emaitza onekin, gainera, gurea ez da txapelketak antolatzea, kirola zabaltzea baizik. Adibidez, kometak egiteko hainbat ekintza burutu ditugu eta bertan gizon-emakume heldu ugari daude. Horixe da gure jomuga. Haurrak ahaztu gabe, noski".

 **Ismael Diaz de Mendibil**

 **Edorta Sanz**

Argazki - Estudio

Erramu

Heraclio Fournier, 23
Tnoa: 13 71 02
01006

Askatasun kalea, 5
Tnoa: 26 19 91
01004

AMILAMIA

arropa eta osagarriak



Pintore kalea, 17
tfnoa:
945 27 40 09
GASTEIZ

**jo eta ke
TXAPELARRI
TABERNA**

Aitzogile (KUTXI) kalean

"Eskuratu dudan domina nire aitari eskaintzen diot"

Ixone Elosegi. Karateka. 25 urte. Enpresa ikasketak bukatzeko ikasgai bat falta zaio. Azken Europako Txapelketan brontzeko domina bereganatu zuen. Nazioarteko berriak atsegin ditu.

• Enpresa ikasketak egin dituzu, karateak sosik ematen ez duenez, zergatik ez duzu gimnasileku bat irekitzen?

- Karatea asko gustatzen zait, baina entrenatzailea izateak ez nau betetzen. Enpresa mundua atsegin dut, gehien bat, marketing-a eta auditoriak.

• Esan daiteke karatean aritzeko dirua ordaindu behar duzula?

- Esan daiteke, ez, hala da. Arropa, materiala, gimnasilekua... ordaindu behar ditut nik. Are gehiago, batzuetan joan-etorriak egiteko gasolina ere ordaindu behar izan dugu. Laguntza ekonomiko bakarra aitarena da, inork ez baitit dirulaguntzarik ematen. Ez niri, ezta gainerakoei ere.

• Nik erretzeak molestatzen zaitu?

- Pixkat bai. Azken txapelketa baino lehenagoko asteetan ez nintzen gauez irtetzen, tabernak kez gainezka daudelako.

• Judo, Taekwondo, karate, dene-tatik egin duzu, baina beti jotzen ibili zara...

- Bost urte nituela, hasi nintzen judoan. Ordutik kirola oso garrantzitsua izan da niretzat, baina ez garrantzitsuena. Oso lasaia naizen arren, aitari judoa gustatzen zitzaion eta lehendabizikoz berak eraman ninduen gimnasilekura.

• Europako hirugarren postua bereganatu zenuenetik, lagun gehiago dituzu?

- Nire egungo lagunak betikoak dira. Egia da, Europako txapelketan domina lortu nuenetik, lagun gehiago hurbiltzen dira, baina horri ez diot inolako garrantzirik ematen, ez bainaz ospetsua.

• Dena den, lagun horiek gauza asko eskatzen dituzte

gehienetan, eta oraingoan hirugarrena sailkatu zarenez, hurrengoan, munduko txapelketan, domina lortzea eskatuko dizute.

- Kritikatzeta oso erraza da, batez ere zertaz ari zaren jakin gabe. Domina hori lortzeko lan handia egin behar izan dut eta ez da erraza izango berriz lortzea.

• Mundukoan begi txikiak dituzten lagun asko egongo dira, bada-go han moldatzerik?

- Karatean Txinak eta Japoniak qso kirolari onak dituzte, baina gehienak gizonezkoak dituzu. Emaku-mezko norgehiagoketan, aldiz, europarrak gara nagusi, indartsuagoak baikara. Behar-bada pisua da gakoa, haiek pisua dela eta ez dela arazoak dituzte eta.

• Azken boladan dopajea dugu berri. Nork irabazi zuen Giroa Pantanik ala Gottik?

- Ni dopajearen aurka nago, ederto baitakit zer ahalegina egin behar den aurreneko postuetan egoteko. Zoritxarrez, karatean ez da dopajea aztertzen eta nire iritziz kontrolak egin behar ziren. Beste modu batez esanda, egitea beharrezkoa da baten batek zerbait hartzen duela somatzen delako.

• Azken hauteskundeetan hainbat kirolari alderdi baten politikarien alde agertu ziren. Zu ere horrelako zerbait egiteko prest zaude?

- Ez zait hemengo politika interesatzen. Goizero egunkaria hartzen dudanean, lehen eta behin nazioarteko berriak irakurtzen ditut. Mexikon hilabete batzuk eman ditudanez, hango berriak irakurtzea atsegin zait. Hala eta guztiz ere, gehien interesatzen zaidana Ekialdeko Europa da, Errusia, Ukraina... nazio komunistak, alegia. Ildo beretik, azken urteotan Chernobileko neska batek etxean eman ditu udak eta, horren ondorioz, hango egoerak kezkatzen nau.

• Esaiguzu nahi duzuna...

- Eskuratu dudan domina nire aitari eskaintzen diot.



"Zoritxarrez, karatean ez da dopajea aztertzen"

Ismael D. de Mendibil  Edorta Sanz

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



Andaluzia kalea 13
☎ 945 28 79 42
GASTEIZ



SANTI
HARATEGIA
URDAITEGIA

Paraguai kalea 17
☎ 945 27 07 90
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA
HARATEGIA



FLORIDA AZOKA 2 eta 3
☎ 945 13 24 48
ABASTOS AZOKA 2 eta 3
☎ 945 26 78 97



JOSEBA
HARATEGIA

Paraguai merkatua
10 El Pilar auzoa
☎ 945 25 66 89
GASTEIZ



*gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak*



adaka
madinabeitia

**Floridako
altxorra !**

35

Mende honetako azkenengo Gasteizko jazzaldia hastear dugu. Mendizorrotzako eta Principal Antzokiko eszenatokiak prest daude. Jazz munduko izen garrantzitsu asko gure hirirako bidean dago, eta guk, zabalik ditugu belarriak New Orleans jaioletako musikaz gozatzeko. Bat, bi eta hiru. Beti bezain ona dadila!

Eta hogeita hirugarrena beteko da aurtentzen. Agerian dago, beraz, gure hiriko jazzaldia ez dela munduratu berria. Urtez urte, udaz uda, jazz-aren izen garrantzitsuenak paseatu ohi dira gure hiriko kaleetatik; eta uda honetan bisitatuko gaituztenak egungo onenak direla esaten ausartzen ez bagara ere, beldurrik gabe aldarrikatuko dugu mendeko azkenengo oso jaialdi erakargarri eta berezia izango dugula.

AURTENGOA

Aurtengo jazzaldia hiru esaldiekin azaldu behar izango bagenu, hauexek lirateke: jazz tankera ugari entzungai izango ditugula, lehenengoa; ospe handiko musikariek joko dutela, bigarrena; eta aurreko urteetako pop-rock izarrik izango ez dela, hirugarrena. Mendeko azken jaialdi honetan parte hartuko dutenak ezagunak ditugu gure hirira lehenengoz ez baitatoz. Pat Metheny-k, Bill Frisell-ek eta John Scofield-ek gitarra lezio handiak irakatsiko dizkigute; Shirley Horn-ek eta Bobby McFerrin-ek ahotsa erabiltzen erakutsiko, Chucho Valdes-ek, Brad Mehldau-ek eta Chick Corea-k pianoan nola aritu agertuko, eta Wynton Marsalis-ek turutotsik ederrenak oparituko dizkigu. Horra hor, bada, uztaillean Gasteizen eraikiko den "musiketxeko" zutabe nagusiak.

WYNTON MARSALIS

Aurreko zenbait alditan ikusi eta entzuteko aukera izan badugu ere, gogoz itxarongo dugu tronpetari aparteko honen agerraldia. Wynton-ek Mendizorrotza Kirolegiko tartea zabalduko du umeei zuzendutako kontzertu baten bidez. Gogoan dugu oraindino duela lau urte haurren irakasle egon zen hura, eta egia esan, ez genuen batere atsegin izan. Dena den, Wynton-i ezin diogu ezer aurpegira bota, oraindik ez baitugu ezagutzen artearen arlo guztietako maisua denik. Marsalis ez genuen



Wynton Marsalis-ek Mendizorrotza Kirolegiko tartea zabalduko du umeei zuzendutako kontzertu baten bidez

gogoko izan hartan, eta bere ondoan gaztelerratzaila egondakoa, Ramon Trecet astuna hain zuzen, askoz gutxiago. Ez al zen izango Trecet Marsalis-en porrotaren erruduna? Nola edo hala, orain lau urteko bigarren saioan, agerraldi pegagogikoa zertu ondoren, New Orleans-eko tropetariak kontzertu bikaina erregalatu zigun; eta aurtengoa, orduantxeko big band berak lagunduta ekarriko digun Duke Wellington-i omenaldia, 95.ekoa bezain ona izatea espero dugu. Eta ez da gutxi izango!

OHITURA BILAKATU ZAIGUNA

Wynton Marsalis-en agerraldia estreinako egunean gertatuko da. Beraz, uztailaren 10ean, jazzaldia hasiko den bezain laster, pastelaren zati handi bat jango dugu. Hala ere, hurrengo asteak eskainiko dizkigunak ez dira hondakinak izango. Igandean, azkenengo edizioetako igande guztietan gertatu den bezalaxe, gospel-a Mendizorrotzako giroaz nagusituko da. Zenbait abeslari itsuk osatututako Blind Boys of Alabama taldeak kanta izpiritual beltzak gerturatuko dizkigu honetan. Hirurogeita hiru urte errepidean eta oraindik bizirik. Hori marka hori!

Asteleheneko kon-



Uztaila, Beroa, Gasteiz eta JAZZALDIA

tzertuaren lehenengo zatiak Brad Mehldau pianojole gaztearen agerraldia ekarriko digu, eta bigarrenak, aldiz, Jam Sesion izenaren atzean izkutatuta ditugun Jacky Terason, Nick Payton eta Jesse Davis-en saioa.

COREA, McFERRIN ETA METHENY

Asteartean, Marsalis alde batera utzita, jazzaldi honen izen entzunenak izango dira Mendizorrotzako eszenatokian. Chick Corea-k eta Bobby McFerrin-ek bai bakarkako bai elkaturiko kontzertuak gauzatuko dituzte, elkaturikoa Gary Burton bibrafonista handiarekin batera egingo dutelarik.

4an Pat Metheny-ren txanda izango da. Gitarra synclavier erabiltzen aurrelaria izandakoa hirukote baten buru itzuliko da gure hirira. Taldearen osaeraren arabera, ez dugu ezer arriskatzeko bere kontzertuan sei kordak nagusi izango direla esatean. Egun bereko bigarren saioan Toots Thielemann eta Kenny Werner aurrez aurre izango ditugu. Hain kalitate handiko bi musikari elkartzeko direnean, ez da zaila izaten emaitza asmatzea.



Gure jazzaldiak erakustoki-mozorroa kentzen du benetako musikaldi bilakatzeko

ERRITMO LATINDARRAK

Ostegunean, azkenengo jazzaldietan gertatu legez, gogoz zabalduko zaie atea erritmo lantindarrei. Danilo Perez panamarrak hasiko du gaua, eta Chucho Valdes pianista kubatarak bukatuko du. Oraindik ere, baten batek pentsatuko balu osteguneko saioa eskasa izango dela, azalduko diogu bigarren partean Claudio Roditi, Michel Camilo eta Giovanni Hidalgo gonbidatu egongo direla. Nahikoa?

MENDIZORROTZAKO AZKENA

Ostiralekoa, hain zuzen. Shirley Horn-en ahots legendarioa lautadako hiriburuan izatea ez al da mende honetako jazzaldia amaitzeko erarik dotoreena? Eta oraindino ase baldin ez bazaudete, Joe Lovano-k, Jonh Scofield-ek, Al Foster-rek eta Dave Holland-ek osatutako laukoteak amaierarik eztiena eskainiko dizue.

XXI. MENDEKO JAZZ-A PRINCIPAL ANTZOKIAN.

Izenak, besterik ez dugu aipatuko, ondoren zuk zeuk erabaki dezazun Principal Antzokia bisitatuko duten musikariek mendearen hasierako jazz garapean zeresanik izango duten ala ez. Hauxe duzu zerrenda: Charlie Hunter & Leon Parker, astelehenean, Bill Frisell & The Willies asteartean, Olu Dara & The Okra Orchestra asteazkenean, eta Jose Luis Gutierrez Trio, Chikagoko Nirankar Singh, perkusioan, eta Iñigo Azurmendirekin, kontrabaxuan, ostegunean.

GASTEIZ JAZZ-EZ JANTZITA.

Hauxe da, beraz, aurtengo uztailean Gasteizen biziko dugun jazz jaialdi ederra. Poliki-poliki gure jazzaldiak erakustoki-mozorroa kentzen du benetako musikaldi bilakatzeko. Jazz-a gero eta hedatuago dago gure hirian. Konbentzituta gaude uztaileko jazz egunetan hiria zeharkatuko duen Marching Band hori, beste areto batzuetan antolatuko diren jazz agerraldiak, eta dendetatik eskainiko dizkiguten jazz diskoak, ez direla apaingarri hutsak izango.

ESAN BAIETZ!



10
U
R
T
E
i
ka
zurekin

- Cursos de 2 y 5 horas / 2 eta 5 orduko ikastaroak
- Todos los niveles / Maila guztiak
- Barnetegis / Barnetegiak:
Lesaka, Doneztebe, Leitza y Etxalar.

* Matrikulazio epea - Plazo de Matricula

Uztailerako (para julio):

ekainak 1 - ekainak 18 (1 a 18 de junio)

Irailerako (para septiembre):

ekainak 1- uztailak 23 (1 a 23 de julio)

Barnetegietarako (para barnetegis):

ekainaren 1etik, hasi baino aste bat lehenagora arte

INFORMAZIOA.

GASTEIZ EUSKALTEGIA

Errege-Erregina Katolikoak, 15 C
945 - 28 89 22 tfnoa.

PINTO EUSKALTEGIA

Pinto, 74
945 - 28 97 80 tfnoa.

ZALDIARAN EUSKALTEGIA

Badaia, 25
945 - 24 49 05 tfnoa.

JAZZ • Gasteiz

MENDIZORROTZA KIROLDEGIAN:

Uztailak 10, larunbata

6:00etan: UMEENTZAKO KONTZERTUA.

LINCOLN CENTER JAZZ ORCHESTRA WYNTON
MARSALISEkin.

21:30etan. DUKE ELLINGTON EHUN URTEaren
GALA - LINCOLN CENTER JAZZ ORCHESTRA
WYNTON MARSALISEKIN.

Uztailak 11, igandea

20:30etan: GOSPEL KONTZERTUA.
THE BLIND BOYS OF ALABAMA.

Uztailak 12, astelehena

21:30etan: BRAD MEHLDAU TRIO.
JAM SESSION 99.

Uztailak 13, asteartea

21:30etan: CHICK COREA ORIGIN GARY BURTON.
BOBBY MCFERRIN.
BOBBY MCFERRIN & CHICK COREA DUO.

Uztailak 14, asteazkena

21:30etan: PAT METHENY TRIO, LARRY
GRENADIER & BILL STEWART, TOOTS
THIELEMANS & KENNY WERNER DUO-ekin.

Uztailak 15, osteguna

21:30etan: DANILO PEREZ TRIO.
"JAZZ EN CLAVE" CHUCHO VALDES, MICHEL
CAMILO, GIOVANNI HIDALGO, CLAUDIO RODITI
ETA JUAN PABLO TORRES-EKIN.

Uztailak 16, ostirala.

20:30etan: VERVE GAUA.
SHIRLEY HORN TRIO. JOHN SCOFIELD, JOE
LOVANO, DAVE HOLAND & AL FOSTER.

"XXI. MENDEKO JAZZA"

PRINCIPAL ANTZOKIA. EGUNERO 18:30ETAN.

Uztailak 12, astelehena

CHARLIE HUNTER & LEON PARKER DUO.

Uztailak 13, asteartea

BILL FRISELL & THE WILLIES.

Uztailak 14, asteazkena

OLU DARA & THE OKRA ORCHESTRA.

Uztailak 15, osteguna

JOSE LUIS GUTIERREZ TRIO.

Uztailak 16, ostirala

LOUIS SCLAVIS TRIO.

"GAUERDIKO JAZZA"

NH CANCELLER AYALA HOTELEAN.


Uztailak 12tik 16era

JACKY TERRASSON TRIO.

SOINUAK DENBORAN ZEHA

DEREK and THE DOMINOS, "Live At The Fillmore"

PolyGram, 1970.



Eta zeintzuk dira izen berezi honen atzean ezkututzen zaizkigun musikariak? Zuzeneko diskoa bikoitz honen hasiera entzun baino ez dugu behar, **The Dominos**-en burua **Eric Clapton** gitarista mitikoa zenez jabetzeko. Dena den, eta oso ezagunak ez badira ere, ez dugu ahaztuko laukote hau baita **Bobby Whitlock**-ek, teklatueta, **Carl Radle**-k, baxuan, eta **Jim Gordon**-ek, baterian, osatzen zutenik. Baina historia liburuak betetzen dituen izen kopurua urria izaten da, eta **The Dominos**-i dagokionez, ez dugu zergatikoa azaldu behar, Clapton izan zen liburu horietan sartu zena, bera baitzen kantagile nagusia eta, batez ere, entzuleek entzun eta ikusi nahi zutena. Beraz, lehen aipaturiko liburuek esango digute **Derek and The Dominos** Clapton gaztea zeneko proiektu bat izan zela; sendoena, gure ustez. Baina birpasa dezagun ezinbesteko gitarista honen ibilbidea **Derek and The Dominos** dagokion lekuan kokatu ahal izateko. **Eric Clapton** rock mundura heldu zen **Jhon Mayall**-en **The Bluesbreakers** taldearen euskutik. Arrakasta nabarmenik sortu ez zuten

arren, gitaristaren ospea bolbora bailitzan zabaldu zen. **Champion Jack Dupree** eta **The Yarbards** izan ziren hurrengo geltokiak, eta 60. hamarkadaren amaieran trena **The Cream** izeneko hirukote mitikoan geratu zen. Garai hartan **Clapton**-ek erreputazio hobezina lortu zuen, hala ere bere konformagaitasunak **The Cream** uztera bultzatu zuen. Bide berri bat ibili behar zuelakoan **Derek and the Dominos** taldea sortu zuen, horiekin **Layla** idatzi zuelarik, eta baita, jakina, aurkeztan ari garen lan hau osatzen duten abesti gehienak. *Live at The Fillmore*-n Clapton inoiz baino trebagoa dugu sei harietan zehar; inoiz baino egiazkoa, inoiz baino basatiagoa. Zuzeneko bilduma hau betetzen duten hamahiru abestiei esker, rock and roll eta blues onenean murgil gaitzeke, ez baitago gainezko minutu bat ere. "Got Get Better In A Little While" k oldarrez zabaltzen du kontzertua. "Blues Power" ek rock and rolla puntu gorenera eramaten du, "Have You Ever Loved a Woman" ek, berriz, eztienera. "Tell The Truth" eta "Let It Rain" bikainak, asko luzatzen badira ere, ez dira aspergarri bilakatzen. "Little Wing" **Hendrix**-ek inoiz jaso duen omenaldirik ederrena dugu. "Crossroads" -ek **Robert Johnson** bera birpiz lezake, eta "Presence Of Lord" i buruz ez dugu ezer esango, bera deskribatzeko hitzik ezdago eta. Lerro hauek guztiak irakurri eta gero ez duzue inolako zalantzarik izango. Eta egia da: maiteminduta gaude *Live At The Fillmore* diskoarekin.

Txabi Arnal-Gil

ARABAKOAK

DESTERRADOS.

Orain zortzi urte Agurainen jaiotako **Desterrados** taldeak kaleratuta dauzka maketa bat, eta *Salvate Si Puedes* laukote gasteiztarrekin batera grabaturiko *Con Nosotros Los Que Quieran*, *Contra Nosotros Los Que Puedan* izeneko KD-a. Euskal Herriko bazter gehienak bisitatu eta gero, orain Estatura ateratzen saiatzen dira. Ongi ibili!

KONTAKTUA:

945.27.35.21 (Almudena)

IMPERDIBLES.

1993.ean jaio, eta urte bat beranduago, bi mila eta bostehun ale! saldu zituen *Ningún Perdido Puede Perderse* izeneko maketa kaleratu. Hau hasiera arrakastatsua! Tamalez, azkenengo lau urteetan, taldekideen harantz-honantzak zirela eta, **Imperdibles**-ek birmoldaketa garaia bizi behar izan du. Hala ere, gaur egun, taldea sendo osatuta dutelakoan, galdurikoa berreskuratzeke prest daude gasteiztar hauek.

HARREMANETARAKO:

670.41.01.12 (Iñaki)

THE LITTLE BAND.

Berbena eta erromerietako garaian murgilduta gaudenez, hona hemen zure herriko jaiak kalitate handiko suaz berotzeko aukera: betiko boskote bat gehi metal-atal iradokigarri bat. Freskoa, ezberdina, edozein musika tankera jotzeko gauza, ohiko orkestren modukoa ez den banda txiki bat.

KONTAKTUA:

945.28.67.03

Txabi Arnal-Gil

GASTEIZ
DIBUtec
Landazuri, 7 - Tel. 23 30 01

- Material escolar y de oficina
- PAPER BIRZIKLATUA
- Fotokopiak
- kolorez eta Zuri-Beltzean
- Arte ederretarako... behar duzun guztia

PAPERTEGI TEKNIKO

BAR KLAKÉ
KUTXA, 2
TFNO. 143883
GASTEIZ

Geu Gasteiz aldizkariko Oporretako Argazkien II. Lehiaketa

Udara honetan barrena egindako argazki onenak sailka itzazue eta bidalizkiguzue. Partehartzaile bakoitzak 3 argazki aurkez ditzake lehiaketan, eta hauek aurkezteko azken eguna irailaren 10a izango da.

Kolorez nahiz zuri-beltzez izan daitezke, eta honako hau baloratu-ko da: originaltasuna, kreatibitatea, tekniko-ki ona izatea, landuta ego-
tea eta garaiz held-
z e a .

Izenburua jarri argazkiei. Saria, bi lagunentzako

afaria irabazlearentzat eta argazki saritua gure aldizkariko urriko azalean ateratzeko aukera. Hortaz, anima zaitezte eta igorri zuon argazkiak helbide honetara: Geu Gasteiz aldizkaria, Pedro Asua kalea 2, 3.a -01008- GASTEIZ. Eta ez ahan-tzi zuen datuak bidaltzea!



Bidaia Kontakizunen I. Lehiaketa



15 urtetik 25era bitarteko gazteentzako Gasteizko Udaleko Gazteria Zerbitzuak antolatzen du lehiaketa hau.

“Bidaia izango da lehiaketaren gaia. Zure bidaie-tan bizi izandako esperientziak nahiz irudikatuak kontatzera gonbidatzen zaitugu.

Sariak. 1.a RENFEren

Inter Rail bat, bi lagunentzako (Marco Polo).

2.a 30.000 ptako bonoa, Arriaga liburudendarako. Bi pertsonentzako bidaia bat REGIONALES RENFE.

Udaleko Argibide eta Erregistro Bulegoan -Plaza Berrian- aurkeztu beharko dira lanak, irailaren 15eko eguerdiko ordu bata baino lehenago.

Irailaren 27an izango da sari banaketa, Goiuri jauregian, 20:00etan. Irabazle suertatzen diren kontakizunen zenbait pasarte irakurriko dira ekitaldi berean.

Honekin batera Marrazki eta Argazkien I. Lehiaketak ere antolatu dira. Informazioa: Gasteizko Udaleko Gazteria Zerbitzua

LEHIAKETAK

MERKURIO-KADMIANO
%0a

CEGASA PILAK
INDARTSUENAK
ETA
EKOLOGISTENAK



CELAYA, EMPARANZA Y GALDOS, INTERNACIONAL, S.A.
Artapadura, 11 - Apdo. 355
Teléf. (945) 12 95 10 - Fax (945) 12 95 14 - 01013 VITORIA

Ardatz

itzulpen eta
euskara zerbitzuak

Arana kalea, 5 - 1

Tfnoa: 945-26 44 32

01002 - GASTEIZ

SAN KRISTOBAL JAIETAN '99

UZTAILAK 9, OSTIRALA

Gaueko 10:45etan.
Hebillas plazan.
CCCP, ALE HOP eta SKALARIAK taldeekin.

UZTAILAK 10, LARUNBATA.

17:00etan
E.H.U.ko aparkalekuan
QUADS (lau gurpleko motorrak) Erakustaldia.

23:00etan.
Hebillas plazan.
Berbena.

UZTAILAK 11, IGANDEA. "GAZTE EGUNA"

15:00etan.
HERRI BAZKARIA
Herriko tabernan.
Kafe Tertulia.

19:00etan.
HERRI POTE OA. Txintxarri tabernan.

19:30etan.
EKITALDI KULTURALA La Calle tabernan

ADURTZA JAIETAN '99

UZTAILAK 16, OSTIRALA

19:00etan. Adurtzako Parkean. ANTZERKIA.
Panta Rhei Taldea: "Anbotoko Dama".

UZTAILAK 17, LARUNBATA

I. Kuadrilen arteko herri joko txapelketa.
Arratsaldeko 20:30etan. Adurtza kalean.
Apuntatzeko bertan ordu erdi bat lehenago.

UZTAILAK 18, IGANDEA.

Goizeko 11etan HERRI KIROLAK (Arabako
zokor bilketa txapelketa).

Adurtza Kalean:
Eguerdiko 12etan EUSKAL EZKONTZA
Arratsaldeko 2etan JAIEN ZOZKETA
Arratsaldeko 3etan HERRI BAZKARIA

Gizarte etxearen ondoko parkean. Arratsaldeko
6etan ERROMERIA Sagardoa, ardoa eta merien-
da.

UZTAILAK 31, LARUNBATA. S. INAZIO EGUNA.

EUSKAL DANTZAK. Adurtza Dantza Taldea.
Meza Santua ondoren. San Inazio elizan.

JAZZBURUA: JAZZ & GROOVE SESSIONS

Salburua Kafetegian (Fueros Kalea, 19)

Uztailak 5. astelehena.
COMBOSSA
(Bossa)

Uztailak 6. asteartea
PAKITA'S CHILDREN
(Bossa, boleroak eta jazz)

Uztailak 7. asteazkena
STARDUST
(Groove & Jazz)

Uztailak 8. osteguna
33/45
(Hip hop Jam Session)



HEGOALDE

matrikula zaitez!

Jose Lejarreta 9 behea • tfnoa 945 28 41 96 • 01003 GASTEIZ

zure
publizitatea
EUSKARAZ

Tfnoa: 945 22 21 53



Errege Atea, 9 - GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85



arropa eta osagarriak
HEMEN DUZU ESPERO ZENUENA!
Pintore kalea, 23 • Tel. 945 28 18 38




**JANTZI
ETA
OPARIAK**

Aiztogile kalea (Kutxi), 27
Tfnoa: 945 26 07 10
GASTEIZ

UDABERRIA
elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33
GASTEIZ



JATETXEA

Aiztogile kalea (Kutxi), 26 - tfnoa: 945 28 81 47
GASTEIZ

**EUSKAL LABELA
LASAGABASTER**

harategia eta urdaitegia

Gasteizko
haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

Ajenda

ERAKUSKETA

Araba Lurralde Historikoaren
Agiritegian.

Uztailaren 31ra arte.

TXARO ARRAZOLA
"Mugimenduan"



PINTURA LEHIAKETA

Haize Zabalean Eginiko Aitor Urdangarin
Arte Aretoa-ren IV. Pintura Lehiaketa.

Uztailak 11, igandea.

Goizeko 10:00etatik arratsaldeko 18:00etara.

EKINTZEN EGITARAUA

ARABAKO NATUR
INSTITUTUA



1999

Arabako Natur Institutua.

UZTAILA.

Urgezatako algei buruzko sar-
bide ikastaroa.

6an, asteartea eta 8an, oste-
guna, Laborategiko sesioak.
10ean, larunbata. Irteera.

IRAILA.

11an, larunbata. Landareak
behatzeko eta jasotzeko irteera.
13an, astelehena eta 14an,
asteartean. Identifikatzeko
sesio praktikoak.

EUSKHARAN KULTUR ELKARTEA

Bideo emanaldiak Udan.

Asteakenero. Uztailan eta Irailean.

19:30etatik 21:00etara. Amaia Zentroan. Galdos Plaza z/g

Datorren ikasturterako tailerren matrikula epea:
Irailaren 1etik 20ra bitartean.

Bidaia Erakusketa IBILI MUNDUAN



99 Bidaia Erakusketa edozein bidaiari buruzko informazioa eta aholkua eskaintzeko da sortua, eta bidaiariak jomuga duten lekuez gozatzen eta ikasten hasi ahal izango dira bertan.

99 Bidaia Erakusketa gazteok zeuok zeuen bidaiak antolatu ahal izan ditza-zuen egin dugu: ibilbiderik onena, garraiorik egokiena, deskontuak lortze-ko aukerak, ostatu aukera desberdinak...

ZER AURKI LITEKE

• Informazioa. Dokumentazio oparoa eskaintzen dugu gidaliburu, aldizkari, bidaia liburu, eskuorri, mapa eta abar-aren bidez. Gai hauek ukitzen dituzte horiek:

- Munduko herrialde guztiak.
- Abentura kirolak.
- Ibilbide alternatiboak: Done Jakue bidea, parke naturalak...
- Hizkuntza ikastaroak erbestean.
- Kultura programazioa.
- Udako Unibertsitateetako Programak

• Lantegiak

Fotografiarako hastapenak: Bidaia argazkiak. Uztailaren 13, 14, 15ean.

Bideo kamera erabiltzea eta bideo muntaiari buruzko oinar-ritzko nozioak. Uztailaren 27, 28 eta 29an.

• Solasaldiak

- **Bidaia Antolatzen. uztailaren 7an.**
- Atlas eta Ande mendilerroetan barrena.
- Hegoaldeko errepidea: Txileko Patagonia.
- **Done Jakue bidea. uztailaren 8an.**
- Erruta, aterpetxe, ibilbide eta esperientziak.
- **Auzolandegiak. uztailaren 19an.**
- Auzolandegi bat antolatzen.
- Holanda eta Esloveniako saiakerak
- **Kultura trukeak. uztailaren 19an.**
- Kultura trukeetarako programak
- Erbestean lana eta ikasketak egitea.
- **Bidaiari eta kooperatzaileak. Uztailaren 20an.**
- Emakumeekiko proiektu bat Nikaraguan.
- Nazioarteko Brigadak.
- Gazteekiko proiektu bat Tanzanian.
- **Hegoaldea Ameriketara. Uztailaren 21ean.**
- Bolibia, kontraste lurra.
- Ekuador, itzalik gabeko herria.

* ordua:19:30etan..

MIKO

izozkiak



GORETTI

ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14

(San Migeleko pasabidea)

Tfno: 945 12 08 88 · 01001 - GASTEIZ

plató

TABERNA

Zaldian Plaza, 10 · Tfno.: 945 22 65 64



BITORIANO (Zuia • Araba) TEL. 945 43 00 73


LA RIOJANA

jatetxea


on egin!

bokatak,
pintxoak,
kazuelatxoak

Aiztogile kalea (KUTXA), 33 tfnoa. 945 25 02 39



Txeroki



**HONAKO BULEGO HAUETAN BADAGO EUSKARAZ HARTUKO ZAITUEN LANGILERIK**

BULEGOAK	ZERBITZUA	Helbidea	Tfnoa.
Udaletxea	Udal informazioa Argibideak eta Erregistroa Errolda Funtzio Publikoa Gazteen Argibide Bulegoa Idazkaritza Prensa Bulegoa Zerbitzu Orokorrak	Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1 Espainia plaza, 1	010 16 11 88 16 11 06 16 11 41 16 13 30 16 13 20 16 13 37 16 13 08
Udala (Dato kalea)	Borondatezko Diru Bilketa Zergen Gestioa	Dato kalea, 11 Dato kalea, 11	16 16 68 16 11 33
Udala (S. Prudentzio kalea)	Gizartegintza Arkitektura Ingurugiroa	S. Prudentzio kalea, 30 S. Prudentzio kalea, 30 S. Prudentzio kalea, 30	16 13 44 16 13 01 16 11 20
Udala (Etxanobetarren etxea)	Emakumeentzako Zerbitzua Euskara Zerbitzua	Sta. Maria kalea, 11 Sta. Maria kalea, 11	16 13 25 16 15 22
Udal artxiboa	Argibideak	Unibertsitateko ibilbidea, 1	16 14 99
Etxebizitza eta Hiri Berrikuntzarako Udal Eragintegia	Argibideak	Espainia plaza, 1	16 12 87
Kultura	Argibideak	Goiuri jauregia (Villa Suso)	16 12 70
Hezkuntza	Argibideak	Frai Zacarias kalea	16 12 16
Ekonomi Sustapena		Frai Zacarias kalea	16 12 11
Gizarte Etxeak	Hegoalde Iparralde Judimendi Lakua Aldabe	Alberto Shommer kalea, z/g Zuberoa plaza, z/g Sefarad plaza, z/g Etxanobetarren zidorra, z/g Eulogio Serdan Pasabidea, 2	16 18 80 16 17 50 16 17 40 17 17 81 16 19 19
Montehermoso Kulturunea	Argibideak	Frai Zacarias kalea, 2	16 18 30
Europa gizarte-etxea	Argibideak Biltzar eta Turismo Zerbitzua Kontzientzia Eragozpena Kirola Europar Mugimenduaren E.K. Elkarte eta Bolondresentzako Z.	Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85 Gasteiz hiribidea, 85	16 12 31 16 12 61 16 36 91 16 15 61 16 15 57 16 19 48
Udaltzaingoa	Administrazioa Antolakuntza	Agirrelanda, 8 Agirrelanda, 8	16 14 58 16 16 60
Turismo bulegoa	Argibideak	Dato, 11	16 15 99

**EZ GALDU OPORRAK EUSKARAZ
BIZITZEKO AUKERA
ETA EGIN ZAITEZ GEU GASTEIZ
ALDIZKARIKO HARPIDEDUN!!!**

**EUSKARAZ IRAKURTZEA
EUSKARAZ BIZITZEKO
PARADA DELAKO!!!**

